



**Arropa Garbia
Kanpaina**



Clean Clothes
Campaign

2025 RANA PLAZA MANIFESTUA

Gaur, 2025eko apirilaren 24an, Rana Plazaren suntsipenetik hamabi urte betetzen dira. Eraikin horrek bost ehungintza-fabrika barne hartzen zituen eta bertan milaka pertsonak, emakumeek bereziki, nazioarteko markentzako arropa egiten zuten. Rana Plaza ehungintza-industriako historian egondako tragediarik larriena izan zen: 1.138 pertsona hil ziren eta 2.000 baino gehiagok zauri larriak izan zituzten, horietako askok gaur oraindik ere ondorio fisiko, psikologiko eta ekonomiko izugarriak pairatzen dituzte. Zifra horiek izen-abizenak dituzten pertsonak ezkututzen dituzte. Bizi-proiektuak zeuzkaten eta maite zituzten pertsonak inguratuta zeuden, haiek gaur egun oraindik ere haien galera sufritzen dute. Ez zen istripua izan, bizitzaren gainetik etekina lehenesten duen sistemak eragindako eta aurreikusi ahal izandako ondorioa baizik.

Biktimak gogorarazi eta aldaketa erradikala eskatu nahi dugu, inor gehiago hil ez dadin gure arropa egiten, lan-esplotazioko baldintzekin amaitzeko eta jaiolekua gorabehera giza eskubideek balio bera izan dezaten. Gobernuek eta enpresek ardurak bere gain hartu behar dituzte. Giza prezio oso altuan arropa egiten jarraitzen duten bitartean, ezin diote ez ikusiarena egin.

Gaur egun, nazioarteko 262 markek ehungintza industriako Segurtasun eta Osasunerako Nazioarteko Hitzarmena sinatu dute. Hitzarmena Rana Plaza eta gero sortu zuten eta, ikuskapen independente eta gardenei esker, Bangladeshen eta Pakistanen ehunka fabriken segurtasuna hobetzea ahalbidetu du. Baina badaude oraindik entzungor egiten dioten marka handiak.

Horregatik gaude hemen. Hamabi urte beranduago, Decathlonek oraindik ez du ehungintza industriako Segurtasun eta Osasunerako Nazioarteko Hitzarmena sinatu eta, milaka pertsonen bizitza arriskuan jartzearen kontura, irabaziak handitzen jarraitzen du.

Nazioarteko presioak markak limurtu ditzakeela badakigu. Guztiok lagundu dezakegu eta Decathloni hitzarmena izenpetu arte atsedetik hartuko ez dugula esan diezaiokegu.

Eta gobernuei ondorengoa esaten diegu: Ez dugu atsedetik hartuko zigorgabetasun korporatiboarekin amaituko duten lege zurrun eta handinahiak egin eta betearazi arte, multinazionalak giza eskubideak eta ingurumena babesten behartzeko, munduko edozein herrialdetan ekoizten dutela ere.

Etekin ekonomikoen gainetik enpresek haien ardurak hartu arte ez dugu atsedetik hartuko.

Rana Plaza gehiagorik ez!